

Ipunak eta proposamenak.

Ondoren datozen 4 ipuinak, beste batzuetan egin dugun legez, manipulatu eta eraldatzeko asmoarekin eskaintzen dizkizuegu. Ipuin bakoitzak jarraian proposamen bat dauka. Ea zer iruditzen zaizuen.

Eguzkia, ilargia eta hiru katutxoak

Etxe hartako baratzean kateme bat bizi zen. Eta egun batean katemeak hiru katakume zoragarri ekarri zituen mundura.

–Zein txikiak diren! –esan zuen eguzkiak–. Berotu egin behar ditut gustura egon daitezen.

–Miauuuu!– esan zuten hiru katakumeek poz–pozik, eguzkiaren beroa sentitu zutenean.

Baina iritsi zen gauaren ordua, eta ilargiak lanera joan behar zuen.

–Zoaz hemendik, eguzki –esan zuen ilargiak–, orain nik egon behar dut zeruan.

–Ez, ez; gaur gauean ez naiz inora joango, hiru katakumeek nire beroa behar baitute.

–Zoaz, eguzki, neuk loaraziko ditut.

–Ezetz esan dizut; joaten banaiz hotzez pasa beharko dute gaua.

Eguzkia eta ilargia arratsaldero haserretzen ziren zerutik katakumeak ikusten egotearren.

–Ospa hemendik!

–Ez dut alde egiteko asmorik. Zoaz zeu!

Behin katemea erabat haserretu zen arte.

–Egunero borrokan ari al zarete? Ba, orain, nik katakumeak eramango ditut hemendik.

Eta arreta guztiz, katakume bat hartu zuen ahoan, beste bat gero, eta hirugarrena azkenik, eta horrela eraman zituen hiru katakumeak etxeko ganbarara.

Eguzkia eta ilargia oso triste geratu ziren katakumerik gabe, eta negarrez hasi ziren.

–Kateme, kateme! –dei egin zuten–, katakumeak ekartzen baldin badituzu berriro, ez gara gehiago haserretuko.

Eta katemeak hiru katakumeak eraman zituen berriro baratzerara, letxugan ondora.

Eta, harrez geroz, eguzkia eta ilargia bakoitzari egokitzen zaionean bakarrik jartzen ziren zeruan, eta ez ziren gehiago elkarren artean haserretu.

A. Lertxundi

Proposamena:

Ipuina kontatu edota irakurri katemeak katakumeak ganbarara eramaten dituela esaten duenera arte eta testuaren puntu honetan haurrei istorioari bira bat eman eta bukaera berri bat asmatzeko eskuko diegu:

“... eta horrela eraman zituen katakumeak etxeko ganbarara”.

Nola bukatuko duzue ipuina?

- Katakumeak kutxa batean sartu ziren, hainbeste haserre eta garrasiz ikaratuta. Gehiago ez ziren atera handik.
- Katamak alde egin zuen leku hartatik katakume eta guzti. Eguzkia eta ilargia amorratuta borroka egin zuten elkarrekin eta zeru osoak eztanda egin zuen.
- Eguzkia eta ilargia ados jarri ziren: eguzkiak goizez berotuko zituen eta ilargiak gauetz lokartuko zituen.

Ahatetxo beldurtia

Lau ahatetxoak errenkan doaz amaren atzetik. Ibaira doaz igeri ikastera.

Zelaian zehar doaz, bat, bi, hiru, lau, belar gozoa ahoratuz, zomorroak beldurtuz.

–Nora zoazte? –galdetu die harrien artean ezkutaturik zegoen dortoka txiki batek.

–Ibaira, igeri ikastera.

–Joan al naiteke zuekin? ikasi nahi dut!

–Zatoz! –erantzun dio ahate amak–. Sartu zeu ere errenkan eta zatoz!

Eta lau ahatetxoak eta dortoka errenkan doaz amaren atzetik. Ibaira doaz, igeri ikastera. Oso geldiro doaz, dortoka atzean gera ez dadin.

Zelaian zehar doaz, bat, bi, hiru, lau, bost, belar gozoa ahoratuz, zomorroak beldurtuz.

Ibaira iritsi bezain laster erabat beldurtu dira.

–Zenbat ur! Horra joan behar al dugu?

–Oso erraza da –esan die ahate amak–. Sar zaitezte astiro, ni bezala, eta mugi hankak atzealdera. Begira nola egiten dudan!

Ahate ama ibaian sartu denean, urak plast-plast! egiten du.

–Goazen goazen, uretara! –dio ahate amak.

Eta hiru ahatetxo, batere beldurrik gabe, uretan sartu dira astiro–astiro eta igerian hasi dira.

–Nik ez dut uretan sartu nahi –esan du ahate txikienak –. Ura hotza dago eta katarroa harrapatuko dut.

–Nik berotuko dizut ura –esan dio eguzkiak goi-goitik–. Sar zaitez!

–Ez, ez, ez naiz sartuko. Beldur handia dut. Nahiago dut igerian polikiroldegian ikasi.

–Ja, ja, beldurri meldurri! –iseka hasi da igel bat saltoka barrez.

–Zatoz, zatoz ahatetxo! –deika hasi da ahate ama–. Hemen nago ni! Ez beldurrik izan!

Azkenean ahate txikiena ere sartu da uretan eta hankak mugitzen hasi da atzekaldera.

Ondoren, ahate guztiek eta dortokak igeri lehiaketak egin dituzte eta jolasean ibili dira ur tanta distiratsuez.

Eta eguzkia irribarrez dago goi-goian.

Eta ahate ama txaloka hasi da alaitsu.

A. Lertxundi

Proposamena:

Beldurrak aztertu: norberak esango du zer ikaratzten duen.

Bakoitzak azalduko ditu bere beldurrak: iluntasunari, bakarrik geratzeari, otsoari, munstroei...

Ze itxura du zure munstroak? Irakasleari kontatu nola hitz egiten duen...

Zer esaten diozu zure munstroari? Zer esaten dizu berak?

Marraztu zure ikara, eta irakasleari diktatu zer esaten duen...

Dutxarik ederrena!

Makina harrigarriak asmatzen zituen Jose Mosek, era guztietako makinak. Begira nolakoak zituen bere ganbaran gordeta.

–Izarrekin hitz egiteko telefonoa.

–Zuhaitzetara igotzeko bizikleta.

–Txoriekin jolasteko kometa.

–Itsuen semaforoa.

–Autoak beldurtzeko txorimaloa.

Behin Jose Mosek triste-triste ikusi zituen herriko haurrak plazan. Inguratu zen haurrengana eta galdetu zien.

–Zer gertatzen zaizue?

–Uda honetan ez du herrian batere euririk egin eta ur gutxi dago iturrietan. Edateko adina ur iristen da baina ez gehiago.

–Eta zergatik ez zarete itsasoan bainatzen?–galdetu zien Jose Mosek.

–Itsaso guztia zikin-zikina dagoelako.

–Eta zer nahi duzue, orduan?

–Zer nahi dugun? Arranopola! A ze galderak egiten dituzun, Jose Mose! Dutxatzeko behar dugu ura. Zertarako bestela?

Jose Mosek begiratu zien hurrei eta batzuk belaun beltzak zituzten, beste batzuk eskuak zituzten zikin-zikinak, beste batzuk, berriz, sudurpea mukiz bete zuten.

Jose Mosek esan zien.

–Lasai, nik konponduko dut zuen arazoa.

Hartu zuen mundu guztian lasai-lasai eta azkar-azkar ibiltzeko patinetea eta han joan zen munduan zehar, Ipar Polotik Hego Polora, Txinatik Txilera, ibai txikienetatik itsas zabalenetara. Eta egun batzuk barru han agertu zen Jose Mose berriro herrian.

–Konpondu al duzu gure arazoa?–Galdetu zioten hurrek–. Dutxatzerik izango al dugu?

–Noski baietz!–erantzun zien Jose Mosek–. Zoazte kaira eta han izango duzue dutxatzeko aukerarik.

Joan ziren haurrak kaira eta zer ikusiko bertan eta balea beltz izugarria kaiaren horma ondoan, lasai-lasai.

–Eta zertarako balio digu baleak? –galdetu zuen neska batek–. Nola dutxatuko gara?

Une hartantxe, balearen bizkar gainetik ur-iturri ugaria altxa zen zeruruntz.

–Hara zer dutxa ederra! –esan zuten hurrek.

Igo ziren haurrak balearen bizkar gainera eta harrez geroz, Jose Moseren herriko haurrek garbi-garbiak edukitzen dituzte belauak, eskuak eta sudurpeak.

A. Lertxundi

Proposamena:

Tramankulu harrigarriak asmatuko ditugu.

Bi hitz zerrenda osatu hurrekin batera: batean, etxeko tresnak, bestean, berriz, lekuen izenak.

Bi zerrenda horiek parez pare jarriko ditugu:

Labana	Basoa
Mailua	Ibaia
Zopa-ontzia	Hondartza
Guraizeak	Parkea

Ea zer asmatzen duzuen. Gustukoena deskribatu: zer den, zertarako balio duen, haren marrazki bat egin...

Gehiago asmatzen badituzte ere erakusketa bat egin haiekin...

Oilarrak lorik ezin egin

Behin batean bazen oilar harro bat, negu gorrian hotzak akabatzen zegoena. Hotzaren hotzez ezin zuen lorik egin, eta hala galdetu zion izotzari.

–Izotz, zergatik nago hotzak akabatzen? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da eguzki, urtu egiten bainau.

–Eguzki, zergatik nago izerditan? Hain idartsua zara?

–Ni baino indartsuago da hodei, estali egiten bainau.

–Hodei zergatik nago itzalpean? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da haize, batetik bestera eramaten bainau.

–Haize, zergatik ezin naiz geldirik egon? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da horma, geldiarazi egiten bainau.

–Horma, zergatik ezin dut beste aldera igaro? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da sagu, zulatu egin nahi bainau.

–Sagu, zergatik karraskatzen nauzu, karras eta karras? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da katu, jan egiten bainau.

–Katu, zergatik dituzu hain atzapar luzeak? Hain indartsua zara?

–Ni baino indartsuago da zakur, nire atzetik baitabil beti.

–Zakur, zergatik dituzu hain hortz zorrotzak? Hain indartsua zara?

–Indartsuago da makila, egurtu egiten bainau.

–Makila, zergatik zara hain gupidagabea? Hain indartsua zara?

–Indartsuago da su, erre egiten bainau.

–Su, zergatik zara hain bihotz beroa? Hain indartsua zara?

–Indartsuago da ur, itzali egiten bainau.

–Ur, zergatik zara menderaezin? Hain indartsua zara?

–Indartsuago da asto, edan egiten bainau.

- Zertan ari ginen ume?
- Ura edaten duen astoarenean, ama.
- Ba, astoak oraintxe arrantza egin du, eta zuk aspaldi behar zenuen ohean.
- Eta oilarra, ama?
- Astoaren ondoan lo, epel-epel. Ondo lo egin. Maite.

A. Lertxundi

Proposamena:

Dudarik gabe, buruz ikasi eta antzeztu, osoa edota puskak...